

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Hauek dira matrikula egiterakoan aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Argazkia, beharrezkoa ikasle txartela egiteko .jpg formatuan.
- NAN / Nortasuna egiaztatzeko agiria
- Unibertsitatean sartzeko aukera eman dizuten probaren edo ikasketen fotokopia konpultsatua, CSVrekin egindako kopia, edo ziurtagiri akademiko pertsonalaren fotokopia eta originala. UPV/EHUko ikasleek ez dute agiririk aurkeztu behar
- Prezioak ordaintzetik salbuetsita egoteko edo prezioak murrizteko kasuetan (prezioei buruzko agindua), hori egiaztatzen duen agiria:
 - Ohorezko matrikula batxilergoan
 - Familia ugaria
 - Ikaslearen desgaitasuna ($\geq 33\%$) edo zuzeneko senide batena ($\geq 65\%$)
 - Terrorismoaren biktimak eta senideak
 - Genero indarkeriaren biktimak eta 25 urte baino gutxiagoko semealabak
 - Nazioarteko babesaren eskatzaileak eta onuradunak eta aberri-gabeak, errolda-ziurtagiria barne.
 - Erroldatze ziurtagiri kolektiboa interesatuak badu desgaitasun bat daukan zuzeneko senidea, genero indarkeriaren biktima baten seme edo alaba bada (25 urte baino gutxiagokoa), edota terrorismoaren biktima baten senidea.
- Ikasleak espedientea lekuz aldatu beharko du unibertsitatean sartzeko proba UPV/EHUen egin ez badu, edota unibertsitateko beste ikasketa batzuetan matrikulatuta egon bada.
- Datu ekonomiko eta estatistikoaren orria, matrikula-prozesuan jakinarazi beharrekoa.

Matrikularen ordainketa helbideratu nahi baduzu, bankuko datuak eman beharko dituzu ordainketa helbideratzeko inprimakiaren bidez matrikula egiterakoan; baina gogoratu txartel/bizum/NireOrdainketa Wallet-en bidez ere ordain dezakezula.

Falta den dokumentazioa UPV/EHUren aplikazio informatikora igo beharko dituzu 10 eguneko epearen barruan. Ikasle profila erabili behar duzu aplikazioan sartzeko, eta "Matrikulak" karpeta "Matrikulatzeko dokumentazioa igo" atala aukeratu. Bideo bat daukazu azalpenekin.